


Euskal AEko industria-jarduera %1,9 gehitu zen 2019ko irailean

%0,8ko gehikuntza dago industri produkzioaren indizean 2019ko lehen bederatzi hiletan

Eustaten datuen arabera, 2019ko irailean, lan-egutegiko termino homogeneoetan %1,9 gehitu zen Euskal AEko industria-produkzioa, 2018ko hil beraren aldean. 2019ko lehen bederatzi hiletan %0,8ko hazkundea izan da, 2018ko aldi beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, %0,4 murriztu zen Euskal AEko industria-produkzioa, 2019ko abuztuarekin alderatuta.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2019ko iraileko indizearen bilakaerak, 2018ko irailekoaren aldean, emaitza ezberdinak dakartza sektore industrial handietan. *Energia* %14,2 gehitu da, *Bitarteko Ondasunak* %2,3 igo dira eta *Kontsumoko Ondasunak*, oro har, %3,8 gehitu dira. Azken horien barruan, *Kontsumo Iraunkorreko Ondasunak* %4,6 gehitu dira eta *Ez-iraunkorrak* %3,5. *Ekipo-ondasunak*, aldiz, %0,9 jaitsi dira.

2019ko iraileko hil arteko aldakuntza ere, 2019ko abuztuaren aldean, oso bestelakoa izan da industri talde handietan. *Ekipo-ondasunak* %9,4 gehitu dira eta *Bitarteko Ondasunak* %0,3. Aldiz, *Kontsumoko Ondasunak*, guztira, %0,3 jaitsi dira (*Kontsumo Iraunkorreko Ondasunak* %6,1 jaitsi dira, eta *Ez-iraunkorrak* %1,3 igo) eta *Energiak* %6,3 igo du behera.

Euskal AEko industriako pisurik handieneko sektoreen artean, hazkunderik handienak 2019ko irailean, urte artean, hauek eduki dituzte: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (%31,3), *Material eta ekipa elektrikoa* (%8,2), *Metalurgia eta produktu metalikoak* (%4,9) eta *Zura, papera eta arte grafikoak* (%4,8).

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	4,9
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	31,3
09 - Kautxua eta plastikoak	-2,1
13 - Makineria eta tresneria	-3,1
14 - Garraio-materiala	-3,7
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industriak	-3,8
12 - Material eta tresneria elektrikoa	8,2
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	4,8

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Alderantzizko zentzuan, jaitsierarik handienak sektore hauetan izan dira: *Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak*, %3,8ko jaitsierarekin urte artean; *Garraio-materiala*, %3,7ko jaitsierarekin; eta *Makineria eta ekipa*, %3,1ekoarekin.

Lurraldearen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen iraileko urte arteko bilakaera positiboa izan da Bizkaian, non %7,9 igo baita, baina Araban eta Gipuzkoan, berriz, %1,8 eta %1,6 jaitsi da, hurrenez hurren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2019ko Iraila

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Ira2019 / Ira2018	A(Ira2019) / A(Ira2018)(*)	Ira2019 / Abu2019	Abu2019 / Uzt2019
Indize orokorra				
Euskal AE	1,9	0,8	-0,4	3,2
Araba/Álava	-1,8	-3,9	4,0	-4,7
Bizkaia	7,9	4,2	-3,6	9,7
Gipuzkoa	-1,6	0,4	0,5	1,4
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	3,8	3,0	-0,3	4,1
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	4,6	3,4	-6,1	16,9
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	3,5	2,9	1,3	1,3
Ekipo-ondasunak	-0,9	-0,4	9,4	-5,1
Bitarteko ondasunak	2,3	-0,1	0,3	1,7
Energia	14,2	5,8	-6,3	10,6

(*) 2019ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2018eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62